EGIN

# Sagardo berria aurkeztu zen atzo

Retegi pilotariak ireki zuen lehen kupela Petritegiko ekitaldi be-
■ Gaur emango zaio ofizialki hasiera denboraldi berriari.

roko ihardueran
enalditxo bat
eta ospakizun be-
egin zuten atzo
rraga inguruko
ogileek aurtengo
o berria aurkeztu
nboraldiari ofi-
asiera emateko.
ra agertu ziren
ioarekin eta ez
n bakarrik, boti-
e kontsumitzera
u zuten.

X. ARAMENDI

itegira bazkaltzera
Udaletxean bildu
zioetako ardura-
ose Migel Bere-
iguel Zapian, Gi-
sagardogile elkar-
dakariak. Bertan
rria aurkeztu eta
uen berri eman
den urtea nahiko
eta hori dela eta
u askokoak izan
tik eta sagardogi-
ko Foru Aldun-
arekin aldatutako
kopuruaren haz-
odukzioa %15-20
, 8 milioi litro
i zuten.
ona izan da sek-
raz," eta produk-
ren aldetik, iaz-
a izan da», gehitu

piainek azaldu
berria oso kali-
: «Sagarra ondo
rekatua izan da.
gehiago botilan
: daramatzanean
ere goreneko
uen guztiak sa-
ean bakarrik bo-
mitzera animatu

Normandiara
adute ere aipa-
n erabili diren



Sagardogileek gustura edan zuten atzo. Andoni CANELLADA

10-12 milioi kiloetatik %65 Gipuzkoakoa izan dela. «Aurrekoetan baino gehiago izan da —zioten—. Horrekin batera, sagardogileak produkzio erak hobetzen ari dira eta esperantza dute epe laburrean Astigarragak eta bere inguruak bere sagardo labela lortuko duela. Dena den, uztak irregularrak dira eta horrek zailtasunak sortzen ditu labela emateko orduan.

## Sagar asko

Izugarrizko gorakada izan du azken zazpi urteotan sagar produkzioak, milioi erditik sei milioi eta erdira igo baita. Horretatik %55 Gipuzkoan kontsumitzen da, baina pixkanaka ari da Estatuan ere sartzen, Aragoi, Bartzelona edo Madrilen. «Gure edariaren kalitateaz oharturik kontsumitzaileek eskatu eta errepikatu egiten dute», azaldu zuten. Hala ere, baditu bere mugak, edari berezia baita, gehigarririk gabea eta ez da hain erraza kanpoan saltzea.

Beraz, kalitatea hobetuz doa urtetik urtera, baina pixkanaka joan beharra dagoela argi utzi zuten.

Arratsaldeko 2.30ak aldera bildu ziren sagardogileak Petritegin eta Julian Retegi Eratsungo pilotaria izan zen lehen kupela ireki zuena «Sagardo berria!» oihukatzen zuen bitartean. Ondoren, oso urduri zegoela aitortu zuen eta ondo etorri zitzaiola sagardo tragoa.

Giro onean ospatu zuten denboraldi hasierako jaia, askotan sagardogile bakoitza bere aldetik joaten den arren, guztiek bat egiten baitute sagardoaren inguruan.



Julian Retegik lehen sagardoa dastatu zuen. Andoni CANEL